



## HAURREN VIII. MERKATU TXIKI SOLIDARIOA

Foruak Pasealekua



Larunbata, 2008ko abenduaren 13a

11:00 o. / 14:00 o. / 17:30 o. / 20:30 o.

Guztion betebeharra da —Gurasoena, Irakasleena, Administrazioaren— umeei hurkoarekiko solidaritate jokabidea izan dezaten irakastea. Helburu garrantzitsu hau lortu ahal izateko beharrezkoa da umeek protagonista izango dituzten proposamenak egitea, hobeto ikasten baitira gauzak, eginez. Hori da, hain zuzen ere, **Haurren VIII. Merkatu Txiki Solidarioak** lortu nahi duena: gure seme-alabak beren udalerriko ekintza solidarioaren protagonista nagusi bihurtzea.

Horretarako, zuen eskoletako irakasle eta guraso elkartearen lankidetzaz ezinbestekoa izan da. Denok gaude prest egitasmo hori merezi duen kausa bihurtzeko. **Zuen parte hartzea eta zeuen seme-alabena baino ez da falta.** Zein eta zelan?

Itxura onean dauden bigarren eskuko jostailuak prezio sinbolikoan salduz eratuko da merkatu txikia. Parte hartzen duten eskola guztien artean bildutako dirua **Intermon Oxfam-ek 'Arma kontrolpean' (populazio zibilaren artean, eta bereziki umeen artean, horrenbeste biktima eragiten dituzten pertsonen kontrako minak) izeneko kanpainaren esparruan den lankidetzaz egitasmo baterako.**

**Helburua lortzeko, itxura onean dauden jostailuak emateko eskatzen dizuegu, zuen seme-alaben bidez eskolara bidaliz.** (Zueen lobel, auzokideei, lagunei... oparitzeko zenizkieketen jostailuak esan nahi dugu). Ahal dela ez pelutzarik ekarri. **Eskola bakoitzeko biltze kanpaina azaroaren 3an, astelehenean, hasiko da eta azaroaren 11n, ostegunean, bukatuko.**

Abenduaren 13an, larunbata, eskola bakoitzeko umeak arduratuko dira jostailu horiek gure herriko auzokideei saltzeaz. (Barakaldar guztien postontzietara helaraziko da ekimen hau azaltzen duen foilettoa). Beraz, umeek boluntario izateko zerrendan emango dute izena, eskolari, baina beti ere zuen baimenarekin; horretarako eskola bakoitzean ikasleei fitxa bana emango zaie.

Gutun honen bidez parte hartzeko gonbidapena luzatzen dizuegu bai eta Barakaldoko 19 eskolak parte hartuko duten proiektuaren aldeko laguntza emateko eskatzen ere.

**Benetan merezi du!**



aurreran duan herria

un pais en marcha

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTU BARRUTIA  
Guztira 10000  
Auzoaren Zuzendaria

DEPARTAMENTO DE EDUCACION  
EUSKAL GOBIERNUA  
Proiektuaren Zuzendaria

Barakaldo

Udala / Ayuntamiento

